

OROIMENA GARBITU EGIA ZERBITZATU BARKAMENA ESKATU

Sarrera

XX. mendean Espainian izandako 498 martiriren beatifikazioa egin zen, 2007ko urriaren 28an, Erroman. Haietako batzuk jatorriz gure elizbarrutietan sortuak ziren. Egokiera hartaz baliaturik –baita lehenago eta geroztik ere–, gogorarazi izan digute, 1936. eta 1937. urteetan hamalau apaiz –hauek ere gure elizbarrutietakoak– hil zituztela gerra irabazi zutenek. Apaiz haiei ez zitzaien egin zegokien hileta-elizkizunik, eta kasu gehienetan ez zen haien heriotza erregistratu ere Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian. Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainok arretaz entzun dugu zuzendu diguten eskaria, onartu ditugu arrazoiak eta bidezkoztat jo dugu egiteke dagoen eginkizun hau betetzea.

Guk, geure elizbarrutietako kristau-elkarteekin batera, “oroimenaren garbiketaren”¹ ekintza burutu nahi dugu. Joan Paulo II.ak gure garairako emandako argibideei jarraituz egin nahi dugu hori, hau da, “etorkizunerako bidean geure urratsak” sendotuz, “geure burua apalago eginez eta Ebanjelioarekiko geure atxikipenean arreta handiagoa jarritz”².

Gertaerak

Zazpi hamarkada baino gehiago joan dira Gerra Zibilak ekarritako bizikidetzaren haustura tragiko hartatik. Eragin mingarriak izan zituen gertaera hark, artean bakarra zen Gasteizko elizbarrutian. Mateo Mujika jauna –gaur, haren oroipena ohoratuz, Jaunaren aurrean gogoan duguna– zen garai hartan elizbarruti honetako Gotzaina. Oso nahasia zelako, lana eta nekea erruz ekarri zion egoera zail batean egokitu zitzaion Gasteizko elizbarrutia gotzain bezala zerbitzatzea, hildako, desagertu, espetxeratu eta deserriratu asko eta asko eragin baitzuen gatazka hark. Eliz elkarte bera ez zen sufrimendutik libratu, ezta urrik eman ere: laiko, erlijioso-erlijiosa eta apaiz ugari hil zuten; beste askok zigorrak eta konponbiderik gabeko galerak jasan zituzten. Hirurogeita hamar apaiz eta erlijioso baino gehiago hil zituzten Gasteizko elizbarrutian, alde baten zein bestearen kontrolpean zeuden lurraldeetan.

Ehunka lagun exekutatu zuten, gorrotoaren eta mendekuen biktima. Denen oroipena eginez, adierazpen honek hau du helburu: garaileek hilak eta isilpera baztertuak izan ziren apaiz haiek bereziki gogora ekartzea. Honako hauek dira zehazki³: Martin Lekuona Etxabeguren, Gerbasio Albizu Bidaur, Jose Adarraga Larburu, Jose Ariztimuño Olaso, Jose Sagarna Uriarte, Alejandro Mendikute Lizeaga, Jose Otano Migelez C.M.F., Jose Joakin Arin Oiartzabal, Leonardo Guridi Arrazola, Jose Markiegi Olazabal, Jose Ignazio Peñagarikano Solozabal, Zelestino Onaindia Zuloaga, Jose Iturrikastillo Aranzabal eta Roman de San Jose Urutiaga Elezburu O.C.D.

¹ Joan Paulo II.a, *Incarnationis mysterium* Bulda, 11.

² Joan Paulo II.a, *Novo millennio ineunte* Gutun Apostolikoa, 6.

³ Ik. Mateo Mujika, *Imperativos de mi conciencia* Gutuna, 1945.

Hauek ez zuten izan hileta-ospakizun jendurrekorik. Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian eta hildako apaizen erregistroan lehenengo bien izenak bakarrik datoz, eta biak Mateo Mujika gotzain jaunak Elizbarrutitik derrigorrez alde egin aurretik hildakoak ziren. Dagozkien parroketako liburuetan ere ez dago hauen heriotzaren arrastorik.

Kontuan izatekoak

Aipatutako gertaerek zer pentsatua ematen digute geuri eta gure elizbarrutietako elkarteei.

Egia zerbitzatu nahi dugu, hori baita justizia, bakea eta adiskidetzera eraikitzeko oinarri funtsezkoetako bat. Ez ditugu zauriak berriro ireki nahi; alderantziz, zauriak sendatzen edo leuntzen lagundu nahi dugu. Ahaztuak edo baztertuak izan direnei duintasuna aitortzen eta beren etxeko eta sendikoen mina arintzen lagundu nahi dugu.

Barkamena eskatzera eta barkamena eskaintzera dei egin nahi dugu. Ez da inola ere gure asmoa geure burua besteen epaile jartzekoa; alderantziz, iraganeko nahiz oraingo geure mugak aitortu nahi ditugu Jainkoaren aurrean. “Kristoren Gorputz mistikoan batzuk eta besteok batzen gaituen loturagatik badakigu, geure aurrekoen hutsegite eta erruen zama daramagula, nahiz eta erantzukizun pertsonalik izan ez eta Jainkoaren epaia saihestu ez, bera baita bihotzak ezagutzen dituen bakarra”⁴. Barkamena eskatzean, Elizak, lehenik eta behin, biziaren eta bakearen iturri den Jainkoari zuzentzen dio bere eskaria. Berari eskatzen diogu “geure arteko desadostasun politikoak eta sozialak konpontzeko bide bezala indarkeria eta heriotza erabiltzeari beti uko egiten jakiteko beharrezko dugun argia eta indarra”⁵. Berak barka ditzala gure hobenak eta erakuts diezagula geure hobendunei barkatzen.

Ekintzak

Oroimenaren garbiketa honen ageriko adierazpen bezala, honako ekimen hauek burutzea erabaki dugu:

1. **Hileta-elizkizun bateratua** ospatzea, haiek beren garaian izan ez zuten aipamen eta aitormen berezia eginez. Uztailaren 11ko larunbatean egingo dugu ospakizuna, gu geu Gotzain guztiok buru garela, Gasteizko Katedral Berrian, eguerdiko hamabietan. Jainkoaren herri osoa dago ospakizun honetara gonbidatua eta, bereziki, gure elizbarrutietako biktimen eta apaiz haien senitartekoak.
2. Elizbarruti bakoitzeko **Aldizkari Nagusian berri hau** argitaratzea, baztertuak izan ziren haien bizitzako eta heriotzako datuak jasoz.
3. Haien izenak Elizbarrutietako hildako apaizen erregistroetan eta dagozkien parroki-liburuetan sartzea.

⁴ Joan Paulo II.a, *Incarnationis mysterium* Bulda, 11.

⁵ Espainiako Gotzainen Batzarra, *La fidelidad de Dios dura siempre. Mirada de fe al siglo XX*, 14.

Oroimena garbituz; egia zerbitzatuz; barkamena eskatuz, eskainiz eta onartuz begiratu nahi diogu iraganari, orainaldi eta etorkizun berriak nola eraiki ikas dezagun.

2009ko ekainaren 30a

✘**Rikardo Blazquez**, Bilboko Gotzaina
✘**Joan Maria Uriarte**, Donostiako Gotzaina
✘**Migel Asurmendi**, Gasteizko Gotzaina
✘**Mario Iceta**, Bilboko Gotzain Laguntzailea

PURIFICAR LA MEMORIA SERVIR A LA VERDAD PEDIR PERDÓN

Introducción

Con ocasión de la beatificación en Roma, el día 28 de octubre de 2007, de 498 mártires del siglo XX en España -bastantes de los cuales eran originarios de nuestras diócesis- así como en otras ocasiones anteriores y posteriores, se nos ha recordado que catorce sacerdotes -también de nuestras diócesis- fueron ejecutados en los años 1936 y 1937 por quienes vencieron en aquella contienda. No se hicieron por ellos los debidos funerales y en la mayor parte de los casos no se registró su muerte en el Boletín Oficial diocesano. Los obispos de las diócesis de Bilbao, San Sebastián y Vitoria hemos escuchado la petición que se nos ha dirigido, hemos reconocido las razones y hemos considerado oportuno cumplir este deber pendiente.

Nosotros queremos realizar juntamente con nuestras comunidades diocesanas un ejercicio de “purificación de la memoria”¹. Lo hacemos siguiendo las orientaciones del Papa Juan Pablo II para nuestro tiempo, tratando de reforzar “nuestros pasos en el camino hacia el futuro, haciéndonos a la vez más humildes y atentos en nuestra adhesión al Evangelio”².

Los hechos

Han pasado más de siete décadas desde la trágica ruptura de la convivencia originada por la Guerra Civil, con efectos dolorosos en la entonces única diócesis de Vitoria, presidida por Mons. D. Mateo Múgica, a quien recordamos ante el Señor, honrando su memoria. Sirvió a la Diócesis de Vitoria como su Obispo en una complicada situación que le proporcionó innumerables trabajos y sufrimientos. Aquella contienda provocó muchos muertos, desaparecidos, encarcelados y desterrados. La comunidad eclesial no fue en absoluto ajena al sufrimiento: a numerosos laicos, religiosos y presbíteros les fue arrebatada la vida; muchos otros sufrieron represalias y pérdidas irreparables. Fueron más de setenta los sacerdotes y religiosos ejecutados en la diócesis de Vitoria, en los territorios controlados por uno u otro bando.

Centenares de personas fueron ejecutadas, víctimas de odios y venganzas. Recordándolas a todas, la presente declaración pretende traer de modo especial a la memoria a aquellos presbíteros que, habiendo sido ejecutados por los vencedores, han sido relegados al silencio. Se trata, en concreto, de los siguientes³: Martín Lecuona Echabeguren, Gervasio Albizu Vidaur, José Adarraga Larburu, José Ariztimuño Olaso, José Sagarna Uriarte, Alejandro Mendicute Liceaga, José Otano Míguelez C.M.F., José Joaquín Arín Oyarzabal, Leonardo Guridi Arrázola, José Marquiegui Olazábal, José

¹ Juan Pablo II, Bula *Incarnationis mysterium* 11.

² Juan Pablo II, Carta Apostólica *Novo millennio ineunte* 6.

³ Cfr. Mateo Múgica, Carta *Imperativos de mi conciencia* 1945

Ignacio Peñagaricano Solozabal, Celestino Onaindía Zuloaga, Jorge Iturricastillo Aranzabal y Román de San José Urtiaga Elezburu O.C.D.

No contaron con una celebración pública de exequias. En el Boletín Oficial y en el registro diocesano de sacerdotes fallecidos solamente constan los nombres de los dos primeros, ejecutados antes de la salida forzosa de la Diócesis del obispo D. Mateo Múgica. Tampoco figuran como fallecidos en los libros parroquiales correspondientes.

Consideraciones

Los hechos mencionados nos interpelan a nosotros y a nuestras comunidades diocesanas.

Deseamos prestar un servicio a la verdad, que es uno de los pilares básicos para construir la justicia, la paz y la reconciliación. No queremos reabrir heridas, sino ayudar a curarlas o a aliviarlas. Queremos contribuir a la dignificación de quienes han sido olvidados o excluidos y a mitigar el dolor de sus familiares y allegados.

Queremos pedir perdón e invitar a perdonar. De ninguna manera pretendemos erigirnos en jueces de los demás, sino reconocer ante Dios nuestras limitaciones en el pasado y en el presente. Sabemos que "por el vínculo que une a unos y otros en el Cuerpo místico, y aun sin tener responsabilidad personal ni eludir el juicio de Dios, el único que conoce los corazones, somos portadores del peso de los errores y de las culpas de quienes nos han precedido"⁴. Al pedir perdón, la Iglesia se dirige, ante todo, a Dios, fuente de la vida y de la paz. A Él le pedimos "la luz y la fuerza necesarias para saber rechazar siempre la violencia y la muerte como medio de resolución de las diferencias políticas y sociales"⁵. Que Él perdone nuestras ofensas y nos enseñe así a perdonar a los que nos ofenden.

Acciones

Como signo visible de este ejercicio de purificación de la memoria, hemos determinado desarrollar las siguientes iniciativas.

1. Celebración de un **funeral conjunto**, con mención y reconocimiento especial de quienes en su día no lo tuvieron. Presidido por todos nosotros, tendrá lugar el sábado 11 de julio en la Catedral Nueva de Vitoria a las doce del mediodía. A esta celebración queda invitado todo el pueblo de Dios y, particularmente, los familiares de las víctimas y los presbíteros de nuestras diócesis.
2. Publicación de una **reseña en el Boletín Oficial** de cada diócesis, recogiendo los datos de la vida y muerte de quienes fueron ignorados.
3. Inclusión de sus nombres en los registros diocesanos de sacerdotes fallecidos y en los libros parroquiales correspondientes.

⁴ Juan Pablo II, Bula *Incarnationis mysterium* 11.

⁵ Conferencia Episcopal Española, *La fidelidad de Dios dura siempre. Mirada de fe al siglo XX*, 14.

Purificando la memoria; sirviendo a la verdad; pidiendo, ofreciendo y acogiendo el perdón, queremos mirar al pasado para aprender a construir un presente y un mañana nuevos.

30 de junio de 2009

✠**Ricardo Blázquez**, Obispo de Bilbao
✠**Juan María Uriarte**, Obispo de San Sebastián
✠**Miguel Asurmendi**, Obispo de Vitoria
✠**Mario Iceta**, Obispo Auxiliar de Bilbao